



IBEROMABEKO GAZTEEN LEHEN FOROAREN ADIERAZPENA

Gu, IberoMAB Sareko gazteak, 23 herrialdeetako 43 biosfera-erreserbatako 89 ordezkari,

Bosques de Paz mugaz haraindiko biosfera-erreserba mugakidean (Ekuador eta Peru) *bildu gara*, 2018ko abenduaren 5etik 8ra, IberoMABeko gazteen lehen foroan, desio batekin: biosfera-erreserbetako gazteen arazoak eta beharrak gutxitzeko eragina duten tokietan, gizarteari, politikari, ekonomiari, hezkuntzari, kulturari eta ingurumenari lotutako alderdietan gobernantza horizontal, inklusibo eta gardenean parte hartzeko aukera ematea IberoMABeko gazteei, erakundeak ere nahasiz.

Gure *esker ona adierazten* diegu UNESCOren Man and Biosphere (MaB) programari, Ekuadorko eta Peruko gobernuari eta MaBen puntu fokalei, Bosques de Paz mugaz haraindiko biosfera-erreserba osatzen duten Bosque Seco mankomunitateari eta Bosque Seco (Ekuador) eta Noroeste Amotapes-Manglares (Peru) biosfera-erreserbei, Paltas kantonamenduari, Lojako Unibertsitate Nazionalaren Centro Binacional de Formacion Tecnica Zapotepambari eta antolatzaileen taldeari, etxean bezala senti gintezen emandako abegi onagatik eta erakutsitako konpromisoagatik.

Bereziki *ematen dizkiegu eskerrak* Belgikako Erresumako Flandriako Gobernuari, Abertis Fundazioari, Espainiako Gobernuari (OAPN Parke Nazionalak Erakunde Autonomoaren eta Espainiaren Ekuadorko Lankidetzaren bidez), Itaipu Binacionali, San Francisco de Quito Unibertsitateari, Galapagos Conservation Trusti eta beren finantza-babesari esker ekitaldi hau posible egin duten guztiei.

Aitortzen dugu foro hau aukera bikaina izan dela IberoMaBeko biosfera-erreserbetako gazteekin esperientziak partekatzeko eta lankidetzan aritzeko, eta etorkizunari begira, aukera eman digula ikuspegi oso bat osatu ahal izateko.

Ikusi dugu, leku askotakoak garen arren, helburu eta ekintza berberak lantzen ditugula biosfera-erreserbetan, IberoMAB Sarean eta MAB programan.

Garapen iraunkorrerako 2030 Agendan, UNESCOren Gizakia eta Biosfera Programarako Limako Ekintza Planean, UNESCOren Biosfera Erreserben Munduko Sarean (2016-2025), IberoMaB Sarearen XVIII. Bilkurako Santa Martako akordioetan (Kolonbia, 2018ko maiatza) eta UNESCOren MaB programako Gazteen Foroko (Delta Poko biosfera-erreserba, Italia, 2017ko iraila) amaierako adierazpenean oinarrituta, ekintza hauek *proposatzen ditugu*, eta adierazpen hau onartzen dugu:

1.- Iberoamerikako eta Karibeko biosfera-erreserbetako gazteen sarea sortzea.

- 2.- Diziplina anitzeko lantaldeak sortzea biosfera-erreserben hiru zereginetarako (kontserbazioa, garapena, eta babes logistikoa), eta lantalde horiek adierazgarriak izatea kulturartekotasunaren eta generoaren ikuspegitik.
- 3.- Biosfera-erreserbetako agenda eraginkor baten garapena indartuko duten proposamenak eta ekintza-planak bultzatzea maila nazionalen.
- 4.- Modu demokratikoan eta parekotasun-irizpideari jarraituz, biosfera-erreserba bakoitzean eta herrialde bakoitzean gazteen ordezkari bat hautatzea, biosfera-erreserben eta IberoMab Sarearen gobernantza-organoetan zuzenean parte hartzeko.
- 5.- UNESCOren mekanismoetan gure sarearen aurkezpen ofiziala egiteko eskatzea.
- 6.- IberoMaBeko gazteentzako plataforma birtual bat sortzea, eta plataforma horrek proiektuei, finantzaketari, hezkuntza-aukerari, trukeei eta ikerketei buruzko informazioa biltzea, gaztediaren erronkei aurre egin ahal izateko.
- 7.- UNESCOk jarraipena egitea eta babesa ematea IberoMaBeko gazteen sareak egindako lanari.
- 8.- IberoMaBeko biosfera-erreserben garrantziaren eta lanaren berri emateko komunikazio-materiala sortzea.
- 9.- Biosfera-erreserben eta gaztediaren ekarpenaren balioa zabaltzeko ahalduntze-mekanismoak diren heinean, plataforma birtualen eta euskarri sozialen erabilera sustatzea.
- 10.- Gazteen ezagutzaren trukea sustatzea, bi urtean behingo partaidetza-topaketen eta maila guztietako mintegi birtualen bidez.
- 11.- Ezagutza ekologiko tradizionalari eta biosfera-erreserbetako jardunbide egokiei laguntza ematea eta haiek sustatzea.
- 12.- IberoMaB osatzen duten herrialdeetan biosfera-erreserbaren marka garatzea sustatzen duten egitasmoetako partaide izatea.
- 13.- IberoMaBeko gazteentzako lan-aukerak eta ekintzailtzarako aukerak sortzeko premia azpimarratzea erakundeei, eta aukera horiek bat etortzea MaB programaren balioekin eta Garapen Iraunkorrerako Helburuekin.
- 14.- Ingurumenaren aurkako delituak gaitzesten dituzten ekintzak eta egitasmoak babestea nahiz defentsa egiten duten horien segurtasuna zaintzea, natura-baliabideak babesten direla ziurtatzeko.